


Haur Eskolako 2025/2026 ikasturterako matrikulazio-epa

2025/2026 ikasturterako, **2023an, 2024an eta 2025ean** jaiotako haurrak matrikulatzeko epea **martxoaren 31tik apirilaren 11ra** bitarte egongo da zabalik.

Bestalde, **apirilaren 1ean Sutegin, bilera informatiboa** eskainiko da, arratsaldeko **17:30ean**.

Matrikula egiteko aurretik ordua eskatu behar da 943374061 telefono zenbakira deituz edo haureskola@udarregi.eus helbidera idatziz.



Azoka solidarioa

Kaixo! Gu LH6-ko ikasleak gara eta aurten, gure proiektua DYA-ri laguntzeko azoka-solidarioa antolatzea da. Azokan, bizkotxoak (glutenarekin eta gabe), patata-tortilla eta DYA-ko hainbat produktu egongo dira salgai.

Prezioak honako hauek dira:

Bizkotxo zatia (glutenarekin eta gabe) 1€, patata-tortilla pintxoa 1,50€ eta DYA-ko hainbat produktu ere edukiko ditugu.

GAUR, Agerialdeko jolastokian edo frontoian 16:15etik 16:45era izango da.

ANIMATU ETA ETORRI GUREKIN BATERA DYA-KOEI LAGUNTZERA!!!



Eskerrik asko
Gipuzkoa!!

Jangela-zerbitzua

Jangelako bazkaldarrek apirilean izango duten menua honakoa da:

◆ 3-16 urtekoen menuak

[Apirileko menua](#)

[Alergia eta intolerantzien menuak](#)

◆ Haur Eskolako (0-3 urte) menuak

[Haur Eskolako menu orokorra](#)

[Haur Eskolako alegia eta intolerantzia menuak](#)



Gogoratu, izena emanda egonik ez badu zerbitzurik behar, usurbil@ikastola.eus helbide elektronikora mezua bidaliz jakinarazi behar dela, gutxienez bezperan, 13:00ak aurretik, **baita egun soltekako kasuetan ere**. Idatziz jakinaraztea derrigorrezkoa da menuari dagokion deskontua aplikatzeko. Hala egiten ez bada, eskaturiko menua kobratu egingo da.

Intsektuentzako babesguneak

DBH 1eko ikasleekin eta nahi duen guztiarekin, sagastientzako eta baratzetako hain onuragarriak diren intsektuak erakartzeko, babesguneak egiteko tailerra antolatu da.

Agerreazpiko baratzetan izango da apirilaren 10ean, osteguna 14:30etik 16:30era.

Irakaslea Mateo Regla izango da, ingurumen zientzien dibulgazioan aditua.

Izen-ematea 943 361114 edo www.alkartasuna.eus webgunean. [Horma-irudia](#)



Tanta boletoak

Aurtengo Kilometroak jaia Elgoibarko ikastolari dagokio antolatzea. [Informazio gehiago...](#)

GAUR, martxoak 28, familia bakoitzeko ikasle zaharrenaren bitartez, **Tanta** txartel bat jasoko duzue.



Izan Hartxintzar Eguna

Maiatzaren 10ean, Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolaren aldeko elkartasun eguna antolatu da. Hezkuntza Sailak ezarritako isunari erantzuteko elkartasun ekintza izango da eta hainbat ekintza antolatu dira, besteak beste, esperimantazio guneak, malabarak, trebetasun jolasak, bertso-triki poteoa, bazkaria,... [Ikus egitaraua](#). Bazkari txartelak Udaregi Ikastolako idazkaritzan salgai izango dituzue astelehenerik aurrera.

- **Haurren menua** (10 €): Kroketak, haragi-bolak eta arroz esnea
- **Helduen menua** (22 €): Entsalada errusiarra, txipiroiak tintan, masailak saltsan eta arroz esnea, sagardoa, ardoa eta kafea

Animatu parte hartzera!!



Kafe-tertulia

Pantailen erabilerak kezkatzen al zaitu?

Hitz-Aho guraso elkarteak kafe-tertulia bat antolatu du pantailen erabilerarekin kezkatuta dauden gurasoentzat. Giro atseginean ikasmaita desberdinetako gurasoak elkar ezagutu eta informazioa trukatzeko aukera izango da. Hitzordua hurrengo **apirilaren 2an, asteazkena, 17:00etan Potxoenean** izango da eta haur txikiekin joan daiteke. [Horma-irudia](#)



Haur-liburuen eguna

Datorren astean, **apirilaren 2an**, asteazkenez, **Haur Liburuaren eguna** da, eta ospakizun txiki bat antolatu dugu Ixabel Agirresaroberen laguntzaz Sutegi Liburutegian. Saioa **18:00etan** izango da. [Horma-irudia](#)



Udal dirulaguntzak. Eskola-Kiroleko kuotetan familiei laguntzeko

Usurbilgo kirol-saileko dirulaguntzen artean, eskolaz kanpoko kirol jarduerak laguntzeko dirulaguntza argitaratu da (oinarriak GAO 30, 2025/02/14

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2025/02/14/c2500822.pdf>)

Eskola-kirolean parte hartzen duten haurren familiek eska dezakete dirulaguntza (Zirimara, elkarteetako kirol eskolak...), eta familiek duten errenta mailaren arabera eta beste baldintza batzuen arabera Udalak dirulaguntza eman dakieke.

Bete beharreko baldintza horiek guztiak [hemen](#) daude laburbilduta.

Baldintzak betetzen dituzten familien kasuan, aurkeztu beharreko dokumentazioa honakoa da:

— Klub/erakundearen ziurtagiri zigilatua (izena eman duela eta zenbat ordaindu duen egiaztatzen duena)

— Ordainagiriak

— [2.a eranskina](#) eta [2.f eranskina](#).

Dirulaguntza horretako lehenengo eskaera-epea 2025eko apirilaren 30ean amaitzen da. Gero bigarren epe bat egongo da, 2025eko azaroaren 12ra arte.



Usurbilgo Udala

HAUR HEZKUNTZA

Haur Eskola: datorren ikasturterako informazio-bilera

Datorren astean, **apirilaren 1ean** arratsaldeko **18:00etan Sutegin** egingo dugun bilerara dei egiten dizuegu. Bertan, **datorren ikasturtearen inguruko informazioa** eskainiko da.



0-1 urtekoen guraso-bilera

Apirilaren 2an arratsaldeko **17:30ean** Haur Eskolan, **0-1** urteko haurren gusaroekin bilera egingo da.

*Ez da zaintza zerbitzurik emango.

*Haurrik gabe etortzea eskatzen da.

Paperezko poltsa

Gogorarazi nahi dizuegu zuen seme-alabek hiruhilabete honetan egindako lanak etxera eramateko paperezko poltsa ekartzeaz.



LEHEN HEZKUNTZA

Ikastola Eguneko bazkariko antolaketarako bilera-deialdia

Ikastola Eguneko bazkaria antolatzeko bilera egingo da **martxoaren 31n**. Azken urteetan, bazkariaren antolaketaz, LH5 eta LH6ko gurasoak arduratzen dira, beraz, maila horietako gurasoei egiten zaie bilerarako deialdia. Bileran, **Agerialde eraikineko hirugarren solairuan izango da arratsaldeko 16:45ean**.



LH4, irteera Debara

Apirilaren 4ean, irteera egingo dugu Debara, Ondarroako ikastolako ikasleekin batera. Orain arte gutun bidez ezagutu dute elkar, eta oraingoan aurrez aurre elkartzeko aukera izango dute.

Informazio garrantzitsua:

Irteera lekua: Usurbilgo tren geltokia

Ordua: 08:45

Zer eraman behar dute?

Bazkaria eta ura.

Ibilaldi motz baterako arropa eta oinetako egokiak.

Mugi txartela (argazkirik ez badu, ziurtatu saldo nahikoa duela, 2,66 €).

Txartelik ez duenak, dirua eraman beharko du biletea erosteko (tarifa orokorra 10.2 €).



Irakurketa-solasaldia

Haur eta gaztetxoentzako solasaldi berri bat antolatu dugu Sutegi Liburutegian. Harkaitz Canoren ORKESTRA LURTARRA izango dugu mintzagai, beste behin, Yolanda Arrietaren laguntzaz.

Saioa 9 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoei zuzenduta dago (LH4-LH6), eta **maiatzaren 7an**, asteazkenarekin, 18:00etan burutuko dugu. Dagoeneko **eskuragarri dugu aipatu liburuaren hainbat ale liburutegian, interesa duenak maileguan har dezan. [Horma-irudia](#)**



XUT: Udaberriari keinu

Naturarekin bat eginez, udaberria interpretatuko dugu irudiz eta hitzez. Banakako zein taldeko ariketak egingo ditugu hiru dimentsiotako irudiak sortuz. Tamaina handian margotu eta idatziko dugu. Animalia eta landare desberdinak azalduko dira bertan. Garaiari loturiko soinu eta onomatopeiek ere jantziko dute lana. Bukatzeko, ipuin ezberdinak sortuko ditugu.

-Egunak: apirilak 22, 23, 24 eta 25

-Ordua: 10:30-12:00

-Ikastaroaren emaila: Zorione Mendez

-Nori bideratuta: 7 eta 12 urte bitarteko haur eta gaztetxoei

-Lekua: Ikastola

-Prezioa: 50 € pertsonako (BEZ-a eta materiala barne)

-Izen-ematea: apirilaren 18ra arte [galdetegiaren bidez](#).



Chromebook-a gelan uzteko aukera

Datorren astetik aurrera, DBH2. mailako ikasleek chromebook-a gelan uzteko aukera izango dute klaseak amaitzen direnean. Bestalde, gurasoekin dokumentu bat partekatuko da etxeko lanak egiteko gailua noiz behar duten jakinarazteko.

Nahiz eta giltzapeko armairuetan gorde ordenagailuak, erantzule bakarra familia izango da, Ikastola ez da Chromebooken erantzule egingo.

Hona hemen [chromebook-a gelan uzteko araudia](#).



Gazteentzako udalekuak

Udalerri euskaldunetako **gazteentzako udalekuak** (2007 eta 2010 artean jaiotakoentzat) antolatu ditu aurten ere UEMAK. Azken urteotan gero eta arrakasta handiagoa du ekimenak eta, beraz, aurten ere **bi txanda** izango dira; ekainean eta uztailen. Txanda bakoitzean **60 lagunentzako** lekua izango da.

Tolosaldean eta Goierriin barrena ibiliko dira aurten gazteak, Baliarraindik Idiazabalera, Zaldibia eta Ataun ere zeharkatuz. Herri bakoitzean bi gau egingo dituzte.

Martxoarekin batera zabaldu du UEMAK izena emateko epea, eta **martxoaren 31n amaituko da**.

Udalekuari buruz gehiago jakin nahi izanez gero jo [lotura honetara](#).



GazteDYA programa

DYAk, urtero bezala, 15 eta 18 urte bitarteko gazteentzat **GazteDYA** programa antolatu du. Parte hartzeko interesa baduzu, [hemen DYAgazte 2025 informazioa](#).



Eskerrik asko
Gipuzkoa!!